



JOSU SANTESTEBAN

Fermin Erbiti

KAZETARIA ♦

Rita, Maria eta Emiliana

EMILIO LLEDOK dioenez, liburua, funtsean, denbora gelditzen duen ontzia da. Bizitzaren esperientzia ezerezaren itsasoan galtzera kondenaturik zegoen, harik eta inprenta asmatu zen arte. Geroztik, gu bezalakoek gozatu, sufritu, amestu eta pentsaturikoa berreskura dezakegu. “Nolabaiteko betierekotasuna da hori –dio filosofoak–, besteen bizitzak gurera ekarri eta harekin aberastea ahalbidetzen digulako”. Horixe da, dudarik gabe, liburuen pagotzarik handiena.

Udako orri-pasa patxadatsuak, besteak beste, hiru lagun interesgarriren testigantza ezagutzeko parada eman dit. Hirurak bizitza oparo eta luzeko emakumeak, askatasun egarriak bultzaturik sorlekutik alde egindakoak, aitzindariak nor bere arloan, garaiko emakumezkoentzat arrotzak ziren zereginetan nabarmendu eta pasioari emanak bizi izan zirenak. Bat italiarra, espainiarra beste bat eta Euskal Herritarra hirugarrena.

Rita Levi da lehenbizikoa. 1941eko udan, Hitlerren armada Europan barna ikara zabaltzen ari den bitartean, gazte judutarra Turingo etxeko gela txiki batean dago ezkutaturik. Halere, lanean segitzen du buru-belarri, mikroskopio zahar baten aitzinean, neuroenbriologiaren arazo baten soluzioa aurkitu nahian. Nazien mehatxu ikaragarria hain hurbil sen-

titu arren, ez zuen etsi, pasioak emaniko indarrari esker, nik uste. Ehun urtetik gorako bizitzan, askotan gogoratu zituen bigarren mundu gerraren hasierako bizipenak, batez ere mende erdi geroago Nobel Saria jaso zuenean...

Maria Zambranok ere faxismoaren mehatxua pairatu eta etxetik alde egin behar izan zuen 1936ko

gerraren ondorioz. Ajez beteriko espainiar demokraziaren ahuldadea hain agerikoa delarik, ur freskoa da filosofoaren diskurtsoa, gaurkotatuen handikoa. Demokrazia “gizakiaren bizileku egokien”tzat jo eta gero, gizarte aldakorrek demokrazia bizia behar duela azpimarratzen du, usteldu eta zaharkituko ez bada.

Eta, azkenik, Emiliana Zubeldia, piano-jotzaile eta musikagile nafarra. Hura ere, garaiko giroak itota, Mexikora joan eta han musikari

emana bizi izan zen, ia 100 urtetan hil zen arte. Nafarroako Gobernuak liburua aurkezpen-ekitaldian, ohiturari jarraituz, ederki ezkutatu zuen biografiak berak azpimarraturiko kontu bat: Zubeldiaren euskal kulturarenganako maitasuna. Euskaraz hitzik ez, kanturik ez.

Lledok arrazoi du: liburua altxor ederra da, galtzera kondenaturik zegoen esperientzia eskura jartzen digulako. Hiru emakumeona, esaterako. ■



Liburua altxor ederra da, galtzera kondenaturik zegoen esperientzia eskura jartzen digulako. Hiru emakumeona, esaterako

DANI BLANCO



Amets Arzallus



BERTSOLARIA

Mixel Lekuona

AIPAMEN handirik gabe isildu da, hil da eta ehortzi dute. Ez zuen ezkila hotsa maite. H-rik ez bere abizenak, eskelaren bat edo beste, beste eskala batekoa zen, eskuak laztutako apaiza, eta guretzat graziaz betea. Makeako bere aterpean maiz elkartzen ginen orduko bertso eskoletako haurrak. Han jokatu ziren Iparraldeko lehen eskolarteko txapelketak, eta antolatzaileei txapela eroste ahantzi –ahanzmenak badu batzuetan halako sen pedagogiko bat–, baina Mixel bere ganbarara igotzen zen eta laster ekartzen zuen txapela zaharren bat, gorria batean,

lastozko bat bestean. Aurreko bizitzaren batean liberalekin gudarostean edo mendebalde urrunean bakero ibilia izango zen. Eta kartzelako gaian bere baratzea erakusten zigun, lerroz lerro antolatua, gure bertsoak baino xuxenago. Han baretzen ziren gure kirioak, eta karakolaren batenak. Bukatzean gasna ematen zigun saritzat, artzainen artean ibiltzea maite baitzuen. Etxanda eraman duten honetan bestelakoa litzateke mundua apaiz guziak artzain balira eta kartzela guziak baratze. ■

